Natale Ormazabal Velazquez



B maila • **Aipamena**

Natale Ormazabal naiz, 14 urteko neska ordiziarra. 2003ko ekainaren 27an jaio nintzen. Txikitatik Ordizian bizi naiz, nire guraso eta ahizparekin. Neska alaia eta arduratsua naiz, egiten dudana ondo egitea gustatzen zait, baina nahiko erraz haserretzen naiz eta batzuetan nahiko burugogorra naiz. Kirola egitea dut gustuko, futboleko talde batean nabil, baina patinaia ere asko gustatzen zait. 4 urteetatik musika ikasten dut, eta musika entzuteaz gain, saxofoia jo eta abestu ere egiten dut. Nire denbora librean lagunekin eta familiakoekin egotea gustatzen zait. Ez dut asko irakurtzen, baina hizkuntza ezberdinetan irakurtzea gustatzen zait. Ingelesa, euskara, gaztelania eta frantsesa ikasten ditut. Idazketa munduan ez naiz gehiegi aritu, ikastolako lanetan bakarrik. Hau izan da idatzi dudan lehenengo idazlana, baina oso gustura ari naiz.

DENBORA AZKAR PASA DA...

Theok 17 urte ditu orain. Jada 7 urte pasatu dira amona ikusten ez duenetik, bere azken irribarrea ikusi zuenetik...

Dena mutikoak 6 urte zituenean hasi zen. Ez zen egoeraz jabetzen, baina bazekien, zerbait ez zihoala ondo, gogorra izango zela. Etxean entzuten zituen gauzengatik, eta batez ere bere amonaren itxura fisikoarengatik jabetzen zen. Aitari galdetzen zion ea zergatik zegoen amona ahul, triste... Baina aitak inoiz ez zion egia esaten eta galdetzen zion aldiro, gaiez aldatzen zuen. Aitak, askotan amonaren etxean egiten zuen lo eta bera amarekin gelditzen zen etxean. Amak ere, inoiz ez zion egia esaten, baina modu batean edo bestean zerbait esaten zion; Theo ez zen egoeraz jabetzen. Mutikoak bizitza normala egiten zuen; goizean ikastolara joan, eta arratsaldean amonaren etxera joaten zen txokolate bokataren bila. Baina Theok, egunetik egunera okerrago ikusten zuen amona Bizenta. Umeak beti barre bat zeukan aurpegian, eta amonak ere bai. Larunbatetan ere, amona bisitatzera joaten zen eta azken aldian amona oso arraro ikusten zuen. Behin eta berriz galdetzen zion ea zerbait gertatzen zitzaion, ea laguntzarik behar zuen. Baina amonak, Theok galdetzen zion bakoitzean, ondo zegoela esaten zion eta indarrak ateratzen zituen barre egiteko.

Denbora azkar pasatu zen. Haurra jada ez zen hain haurra, maiatzaren 30ean, 9 urte bete baitzituen. Astelehen normal bat zen. 14:30 ziren eta klasetik atera zen. Aitak beti itxaroten zion ikastolako maldan, baina egun horretan ez zen bertan ageri. Itxarotea pentsatu zuen, auto ataskoren bat zegoelakoan edo. Hamar minutu beranduago aita azaldu zen.

- Korri Theo, sartu! - Oihukatu zuen aitak.

Ez zekien zer gertatzen ari zen. Aitari galdetu zion, baina ezer ere ez, ez zuen ezer esaten. Azkenean, ospitalera iritsi ziren. Igogailuan sartu, eta 6. pisura igo ziren eta onkologia jartzen

zuen solairuan jaitsi. 617. gelaren ate parean geratu zen Theo, eta aita aurretik sartu zen gelara. Ez zekien zein egon zitekeen barruan, ez zuen inor espero, baina.... Amona! Amona Bizenta zen. Mutilari, mundua gainera etorri zitzaion. Oso triste jarri zen. Sartu eta besarkada bat eman zion. Estu-estu heldu zion. Theok ez zuen ezer esan, ezin zuen. Amonak irribarre bat zeukan aurpegian marraztuta. Mutikoak hori ikusita lasaiago geratu zen.

Arratsaldean, Theo futbol entrenamendutik bueltan zen. Gurasoak sukaldeko mahaian aurkitu zituen. Ama, negarrez. Aita, ama besarkatuta lasaitu nahian. Umeak ez zuen ezer esan.

- Theo, laztana... Amona ez dago ondo. Bularreko minbizia dauka. - Aurreratu zen ama.

- Banekien ez zegoela ondo, ama. - Adierazi zion, eta besarkada bat eman zion.

Mutikoa, nahiz eta oraindik haur bat izan, oso mutiria zen, baina askotan ez zuen nahi bere alde sentikorra erakutsi eta bakardadean sufritzen zuen. Amak beti esaten zion sentimenduak kanporatzea ez zela ezer txarra, baina amak asko miresten zuen Theok zeukan jarrera, kemena eta ausardia eta beti barre egiteko gogoa.

Amona ere oso ausarta eta leratsua zen, miresteko jarrera zuen. Gaixotasunak ez zion galarazi zen bezalakoa izatea. Hain ziren berdinak Theo eta amona, lagun hoberenak bezala ziren.

Iritsi zen azaroaren 27a, eta amonak, hirugarren kontsulta zeukan onkologoarekin. Bera beti bezala lasai zihoan kontsultara. Theo-k lagundu zion, bide guztian bere ondoan egotea pentsatzen baitzuen, amonak beragatik egin zuen guztia orain berak egin behar zuelako. Kontsultan sartu ziren, eta amona-bilobak eskutik estu-estu heldu ziren. Theori, handia gelditzen zitzaion hura; makinak, kableak, botikak... Pixka bat beldurtuta zegoen, baina kementsuarena egiten zuen amona ondo sentitzeko.

Ordu erdi eskas igaro zuten koltsutan, oso ordu erdi gogorra eta luzea. Theo negarrez; ez zuen hori espero. Bere lagunik onena eta bere amona zena... oso gaixorik zegoen. Minutu batzuk lehenago kontsultan, medikuak oso berri txarra eman zien.

- Egindako probak aztertu ondoren, minbiziak okerrera egin duela konturatu gara. Ez dizu ezertarako balio izan ez kimioterapiak eta ez erradioterapiak. Sentitzen dut, baina... geratzen zaizuna gozatu. - esan zion serioski Bizentari.

Haurra negarrez zihoan ospitaleko korridoretatik. Amona besarkatzen ari zitzaion. Honek ere ez zuen berria espero baina ez zuen horren gaizki hartu. Amona oso ausarta zen.

Ospitale kanpoan parkingean zeudela, amona eta biloba atearen parean zegoen eskaileran eseri ziren. Minutu batzuetan begietara begiratzen jardun zuten, biek begiak bustita zituzten. Amonak isiltasuna puskatu zuen.

- Tira Theo, egon zaitez lasai. Amonak edozer egin behar du zure ondoan egoteko falta zaizkion momentu hauetan. Zure futbol partidak ikustera joango naiz, eta ikastolara zure bila joango naiz azken egunera arte. - musu bat eman zion bekokian. - Maite zaitut, ez ahaztu.- Bukatu zuen xuxurlatuz.

Theo lasaiago geratu zen, amonak arrazoi zeukan. Beti izan zuten erlazio berezia eta beti izango zuten. Eskaileratik jaiki eta autobus geltokirantz abiatu ziren. Txartela pasa eta azkeneko ilaran eseri ziren.

- Amona... mila esker orain arte nigatik egin duzun guztiagatik.- adierazi zion negarrez.

Biak besarkaturik eman zuten etxerarteko bide guztia. Ospitaletik atera eta geroko momentua ahaztezina izaten ari zen. Theok etxeraino lagundu zion amonari, biak eskutik emanda zeuden. Banandu ezinak ziren. Asteak, egunak, orduak... azkar pasatzen ziren bikotearentzat, baina batera egoten zirenean denbora gelditzen zela ematen zuen, azken detailea ere aprobetxatzen baitzuten..

Emozioa, egonezina... Gabonak hurbiltzen ari ziren! Bai amona eta bai bilobarentzat, hau zen

urteko garairik gustukoena; elurra, opariak, familiarekin egoteko denbora, argiak, giroa... dena aparta zen. Theok, astero bezala futbol partida zeukan, gainera aste horretan etxean jolastea tokatzen zitzaion. Eta amonak agindu zion bezala, futbol partida ikustera joan zen. Jada amona ez zegoen ondo, baina indarrak atera zituen ikustera joateko, eta Theok ikusi zuenean ilusio handia egin zion. Ez zekien amonaren presentziak edo, baina inoiz baino gogotsuago ari zen jolasten. Umea atzelaria zen eta ez zituen gol asko sartzen baina...

- Hor doa Theo amona, ikusi-ikusi! - egin zion oihu aitak amonari.

Theok baloia hartu, eta korrika hasi zen. Aurkariari baloia hanka artetik pasatu eta gero... Gooola! Haurrak baloia hartu eta amonarengana joan zen. Musu eman zion eta gola eskaini zion. Amona emozioak jota negarrez hasi zen. Aitak besarkatu zuen.

Partida bukatutakoan, aldatu eta azkar azkar familiarengana bueltatu zen. Amona oso harro zegoen Theoz.

Hurrengo eguna iritsi zen, urteko egunik esperotakoena. Leihotik begiratu eta pareko autoak zuri-zuri zeuden, lurra ere zuri-zuri oraindik hanka arrastorik gabe. Haurra pozik algaraka jaitsi zen eskailerak behera, abenduaren 24 zen! Kalera irten eta elurretan jolasean eman zuen goiza. Eguerdian, kalera irten zen gabonetako kantak abestera eta ondoren amonaren etxera bazkaltzera. Theok amona oso gaizki ikusi zuen. Iritsi zenean, ohean etzanda zegoen. Ez zeukan indarra altxatzeko ere. Umeak, zopa bero bat prestatu eta ohera eraman zion. Arratsaldean, prestatzen lagundu zion gauean afaltzera joateko.

Aurten, 24 gauean Theoren etxean afaltzekoak ziren. Haurra urduri zegoen. Azken apainketa egin eta familiakoen zain geratu zen. Momentu batez, amonarengan pentsatzen jarri zen. Egun horretan ikusi zuen bezala eta gero triste jarri zen, amona azken aldiz ikusiko ote zuen galdetu zion bere buruari. Txirrinak jo zuen eta pentsamenduz aldatu zuen. Aterantz joan zen korrika eta atea ireki zuen. Izeba eta amona ziren. Eguberri on! Egin zuen oihu Theok. Bi musu eman eta mahaira lagundu zien. Berehala, familiako besteak iristen joan ziren. Denak mahai inguruan bilduta. Denak pozik ziruditen, baina amonaren egoera denen burutan zegoen. Afaldu ondoren, aitak txanpan botila bat atera zuen.

Momentu itzela zen 2010 urteari agur esateko, eta bide batez amonari eskerrak emateko, familia guztiagatik egindakoagatik. Amonarekin bizitako une on eta dibertigarriak gogoratu zituzten, abestu egin zuten, elkar besarkatu... Txin-txin egin zuten bizitako guztiagatik.

Theok lo hartu zuen familiakoak joan aurretik, eta hurrengo goizean sofan esnatu zen. Gabonetako zuhaitzaren azpian, opariak zeudela ikusi zuen. Berak ez zuen ezer espero, ez baitzuen oparirik eskatu. Berarentzako, oparirik handiena amona sendatzea izango zen, baina bazekien hori ia ezinezkoa zela. Gurasoek oparia eman zioten. Ireki zuenean, futboleko bota berriak zirela ikusi zuen. Asko poztu zen, zeuzkanak oso zaharrak eta modaz pasatuta baitzeuden.

Abenduaren 27a zen, eta Theo egunero bezala, amonaren etxera joan zen arratsaldean. Atea ireki zuen, inork ez zuen ezer esan. Theo izutu egin zen, baina amona gelan aurkitu zuen. Ohean etzanda.

- Amona, amona!- Oihukatu zuen Theok negarrez. Haurrak, estu-estu heldu zion amonari.

- Amona, mila esker denagatik, nigatik egin duzun guztiagatik, munduko amonarik onena izan zara eta izango zara. Maite zaitut.- adierazi zion, besarkatuta zeudela.

Momentu batzuk beranduago, amonak arnas egiteari utzi zion. Theo negarrez egon zen tentu luze batez beraren ondoan. Bi sentimendu nahasi zituen; alde batetik triste zegoen, amona gehiago ikusi behar ez zuelako, baina beste aldetik, lasai zegoen, berarekin egon baitzen azken momentura arte eta sentitzen zuen guztia esan baitzion.

Denbora azkar pasa da.. eta orain, zazpi urte beranduago, amonaren falta sumatzen du. Baina, badaki berarekin dagoela beti, babestu egiten duela, eta horrek lasaitzen du.